

104. zenb.

XLII. URTEA
2024 UZTAILA-ABENDUA

ISSN 2530.3287

**Elena
Prieto Pérez**

elenaprieto.com

tuesculadeespanol.es

[@ELEelenap](https://twitter.com/ELEelenap)

[LinkedIn: Elena Prieto Pérez](https://www.linkedin.com/in/elena-prieto-perez)

Bestelako lankidetzak

Hizkuntzak irakasteko bideoak sortzeko aholkuak

Helduen euskalduntzean bideoaren erabileraz egindako ForVid ikerketako emaitzei erreparatuta, irakasleek zein ikasleek grabatutako bideoen ekoizpena areagotzeko bideak eskaintzea da artikulu honen xede nagusia. Hala, hizkuntza-irakasleek grabatutako bideoek dituzten abantailak azpimarratu ondoren, hizkuntzak irakasteko bideo-mota nagusiak azalduko dira labur-labur eta horrelako bideoak sortzeko aholkuak emango dira alderdi nagusiei erreparatuta, hala nola plangintzari, edukien antolaketari eta grabazioaren kalitateari. Amaitzeko, zenbait bideo-formatu aztertuko dira, hain zuzen ere ikuspuntu teknikoari begira sinpleenak direnak (ikus-entzunezko edizio- eta postprodukzio-ezagutza sakonak behar ez dituztenak).

Gako hitzak

bideoak, bideotutorialak, ForVid ikerketa, grabazioak, prosumitzaileak

1. BIDEOEN ERABILERA GAUR EGUN HELDUENTZAKO EUSKARAREN IRAKASKUNTZAN, FORVID TXOSTENAREN DATUEN ARABERA

ForVid: helduei euskara xede-hizkuntza gisa irakasteko bideoa erabiltzea ikerketaren arabera (Cassany et al, 2023), inkestan parte hartu zuten euskara-irakasleen % 94k baino gehiagok bideoak erabiltzen dituzte eskoletan, baina soilik % 12,84k bultzatzen dituzte ikasleak bideoak grabatzera, eta are gutxiagok (% 11k) grabatzen dituzte bideoak ikasleekin erabiltzeko. Horrez gain, bideoak grabatzen dituzten euskara-irakasle gutxi horiek ere oso bideo gutxi egiten dituzte (erdiak bideo bat edo bi besterik ez ikasurtereko, eta, heren batek, hiru-bost). Gainera, gehienak laburrak dira (% 77k minutu bat eta bost minutu artekoak).

Harrigarriak dira datuok, kontuan hartuta bideoak erruz erabiltzen direla helduek euskara ikasteko eskoletan (ohikoa da astero ikustea bideoak) eta ikasleek asko estimatzen dutela irakasleek beren bideoak grabatzeko egiten duten ahalegina.

Alde horretatik, aipatutako txostenean jasotako datuen arabera, euskara-ikasleen % 47k asko estimatzen dute irakasleek egindako bideoei esker beren prestakuntza askoz

pertsonalizatuagoa izatea (“bideo egokituak izatea”), eta % 36k adierazi dute “entretengarri eta interesgarriagoak” direla. Beraz, esan daiteke motibazioa eragiten dietela.

Bideoek ematen dieten autonomia da ikasleek azpimarratu duten alderdi bat. Hain zuzen, % 58k asko estimatzen dute bideoak nahi dutenean ikusteko aukera izatea, eta % 39k uste dute galdu dituzten eskolak berreskuratzeko modu egokia dela bideoak ikustea.

Euskara-irakasleek ondo ezagutzen dituzte bideoak grabatzearen abantaila eta desabantailak. Gehienek (% 66k) diote denbora behar izaten dutela, baina badakite ikasleek, ahalegina estimatzeaz gain, oso lagungarri dituztela. Gainera, % 50en arabera, bideoak hezkuntza-material argi eta berrerabilgarriak dira, eta % 33k uste dute ikasleak motibatzen dituztela.

2. IRAKASLEEK BIDEOAK SORTZEAREN ABANTAILAK

Datu horiek guztiek oso argi utzi dute: helduentzako eskoletarako bideoak sortzen dituzten euskara-irakasle gehiago behar dira. Gainera, jarduera horrek beste abantaila didaktiko batzuk ere baditu.

Hasteko, bideoak ondo baino hobeto egokitzen zaizkio gaur egun darabilgun formatuari, bai entretenitzeko bai gure arteko komunikaziorako; bereziki gazteen arteko joera da. Bide batez, eskolak interesgarriagoak, erakargarriagoak eta dinamikoagoak izaten dira, monotonía saihestuz.

Horrez gain, ikus-entzunezko formatuak deigarriagoak dira, eta ikusitakoa errazago gogoratzeko aukera ematen dute, bi zentzumen erabiltzen ditugulako: ikusmena eta entzumen. Gainera, irudi mugikorak, hitzak eta testuak sartzen dituztenez, informazioa sekuentzian banatzeko aukera ematen dute.

Eta beste abantaila bat: bideoak edozein maila eta adinetako ikasleekin erabil daitezke, eta hizkuntzarekin, gizartearekin eta kulturarekin lotutako edozein gai lantzeko, baita eguneroko bizitzako egoera arruntak erakusteko ere.

Beraz, bideoak irakasleak berak sortzen baditu, bere eskoletan erabil ditzake ikasletalde jakin batekin landu nahi duen gai jakin bati buruzko eduki konkreituak erakusteko, nahiz eta testuliburuan jasota ez egon. Alegia, ikasleen behar eta interesetara hobeto egokitzeko balia daitezkeenez, motibazioa pizteko ezin hobeak izango dira.

Eskola-garaian nahiz eskolatik kanpo ikus daitezkeela da bideoen abantaila nagusietako bat. Azken urteetan, nabarmen egin du gora bigarren aukera horrek, ikaskuntza ikasgelatik kanpo zabaltzeko modu aktiboagoa baita. Ildo horretatik, bigarren hizkuntzak ikasteko programetan gero eta gehiago erabiltzen da *flipped classroom* edo ikasgela iraulia metodologia. Planteamendu horrek aldatu egiten du irakasteko modua: ikasleek etxean ikusten dituzte hizkuntza-azalpenei buruzko bideoak (azalpen gramatikalei buruzkoak, bereziki), eskola aurretik, eta zalantzak argitzeko zein ezagutza horiek finkatzeko jarduera praktikoak egiteko erabiltzen dituzte ikasgelako orduak.

Bideoak ikasmaterial moduan erabiltzeko beste urrats bat da irakasleek sortutako bideoak adibide gisa jartzea, ikasleek ere bideoak sor ditzaten. Horrela, rol aktiboagoa izango dute ikaskuntzan, eta prosumitzaile (aldi berean kontsumitu eta ekoizten dutenak) bihurtuko dira eta parte-hartze handiagoa izango dute ikaskuntzan, eta autonomia handiagoa prozesuan.


Helduen euskara-irakasle asko erdi-izututa ibiltzen dira hezkuntza-bideoak sortzeko, askok uste baitute beharrezkoa dela trebetasun teknologiko handia izatea. Beldurrak

kentzeko eta lan hori errazteko, jarraian bigarren hizkuntzak irakasteko erabiltzen diren bideo-motarik ohikoenak azalduko ditugu, eta, ondoren, ikasleentzat erabilgarriak izango diren bideo didaktikoak sortzeko aholku orokorrak emango ditugu.

Amaitzeko, ikuspuntu teknikoari begira sinpleenak diren bideo-formatuak aztertuko ditugu, ikus-entzunezko edizio- eta postprodukzio-ezagutza sakonak behar ez dituztenak: pantaila-irudiak, gerritik gorako grabaketa eta irakaskuntza-saioen grabaketa. Kasu bakoitzean, nola egin daitezkeen eta zein kontu tekniko landu behar diren ikusiko dugu.

3. HIZKUNTZAK IRAKASTEKO BIDEO MOTAK

1. irudia. Hizkuntzak-irakasteko bideo-motak



3.1 PANTAILA-IRUDIZ OSATUTAKO BIDEOTUTORIALAK.

Aukeran ditugunetatik, bideo didaktiko bat sortzeko formaturik sinpleena da, baina bideo erabilgarri askoak egin ditzakegu halere, bereziki ikasleek eskola aurretik edo ondoren ikusteko, nola gai berri bat aurkezteko hala ikasitakoa finkatzeko.

3.2. IRAKASLEA KAMERARI BEGIRA HITZ EGITEN ARI DELA GRABATUTAKO BIDEOAK.

Irakaslea grabatzen da, bularretik gora, lehen planoan; kamerari begira azalpenak ematen dituela edo atzeko arbel batean idazten ari dela. Ikuspuntu teknikoari begira, formatu hau apur bat konplexuagoa da, aintzat hartu behar baitira irudiaren kalitatearekin lotutako kontuak (aurrerago aipatuko ditugu). Alabaina, ikasleei gertukoa iruditzen zaie, irakaslea bera ari zaielako hitz egiten; gainera, mota guztietako hizkuntza-gaiak landu daitezke bideo hauetan.

3.3. IRAKASLEA KAMERARI BEGIRA HITZ EGITEN ARI DELA, ATZEAN CHROMA BAT DUELA.

Aurreko formatuaren antzekoa da, baina teknikoki konplexuagoa; izan ere bideoak editatzen jakin behar baita *chroma* erabiltzeko eta irakasleak egoki irizitako testu eta irudiak txertatzeko. Horren trukean, aukera gehiago ematen ditu azalpen konplexu eta dei-garriagoak egiteko.

Chroma teknikaren bidez, grabatutako irudiaren atzeko adela edo hondoa (berdea, normalean) ordezkatu egiten da ordenagailuaren bidez, "inguru" berri bat sortuz (ikus 2. irudia).

3.4. ESKOLA-SAIO BATEN GRABAZIOA.

Osorik graba daiteke irakaskuntza-saio bat, jarduera bat edo ikasleek egindako dinamika jakin bat. Oso erabilgarria da bideoan agertzen diren ikasleek beren jarduera berrikusi dezaten, edo beste ikasle batzuentzako adibide izateko, baina teknikoki oso formatu konplexua da, ez baita inondik ere erraza irudi- eta soinu-kalitate ona lortzea hainbat parte-hartzaile izanda. Gainera, grabaketan agertzen diren guztien baimena lortu behar da.

3.5. KOMUNIKAZIO-EGOERA ERREALEN GRABAZIOA.

Formaturik konplexuena da ikuspuntu teknikitik, eta baliabide fisiko gehien behar dituen (kamerak, argiak, mikrofonoak, etab.) eta bideoak editatzeko ezagutza handia. Ordea, ikasleei aukera ematen die eskolako jarduna eskolatik kanpo berrikusteko, eta beste ikasle batzuekin erabiltzeko adibide oso interesgarriak dira.

4. HIZKUNTZAK IRAKASTEKO BIDEOAK SORTZEKO AHOLKU OROKORRAK

Irakasle batek, hezkuntza-bideo bat egiteko aukeratzen duen formatua edozein dela ere, aintzat hartu behar ditu zenbait kontu orokor:

1. plangintza;
2. edukiaren egitura eta antolaketa;
3. bideoaren irudi- eta soinu-kalitatea.

Jarraian, xehetasunez aztertuko ditugu hiru alderdi horiek.

4.1. PLANGINTZA

Plangintzari dagokionez, bideoa grabatu aurretik, zehatz-mehatz jakin behar da egin beharrekoa; hau da, bideoan zer erakutsi nahi den eta zein hurrenkeratan, betiere irakaslearen helburu didaktikoan oinarrituta.

Horretarako, landu beharreko gaia aukeratzea da lehen urratsa; zehatza, mugatzeko erraza eta interesgarria izan behar du. Ahal izanez gero, etorkizunean beste ikasle batzuekin berrerabiltzeko aukera eman behar du, grabatzeko erabilitako denbora amortizatzeko.

Gaia aukeratu ondoren, bideo-mota eta estiloa aukeratu behar dira. Bi kasuetan, helburu didaktikoen arabera izango da, baina baita irakaslearen izaeraren arabera (eroso sentitu behar du) eta ikasleen izaeraren arabera ere bai.

Irakasleak ez badu inoiz antzeko bideorik egin, gomendagarria da aurrena tarte bat hartzea aukeratutako bideo-motetara eta erabiliko duen programara ohitzeko, beste irakasle batzuen adibideak ikusita esaterako.

Plangintzaren hirugarren urratsa dokumentazioa da; hots, bideoa egiteko beharrezko informazioa biltzea, sailkatzea eta antolatzea.

Azkenik, ezinbestekoa da gidoi bat idaztea. Dokumentu horrek xehetasunez jasoko du grabaketan zer erakutsi nahi dugun eta zein hurrenkeratan.

4.2. EDUKIA ANTOLATZEA

Edukia antolatzeaz ari garela, funtsezkoa da taxuz egituratzea edukiok, helburu didaktiko guztiak ondo beteko badira.

Horretarako, bideoa gai bakar bati lotzea da garrantzitsua, eta argumentuaren hariari jarraitzea. Beraz, ez da gai bat baino gehiago jorratu behar bideo bakar batean; ikasleak nahastuko lituzke horrek eta ez da komeni informazio gehiegi ematea. Kontuan izan ikasleak hizkuntza bat ari direla ikasten. Azkenik, ahal izanez gero, istorio bat kontatu behar da, sarrera, korapiloa eta amaiera dituen.

Halaber, iraupena ere aintzat hartu behar da bideo didaktiko bat sortzerakoan. Nire esperientziaren arabera –YouTube-rako bideoak sortzen jarduten naiz eta milioika aldiz bistaratzen dira nire bideoak–, esango nuke hizkuntza-azalpenak biltzen dituzten bideoek bost eta hamar minutu artean iraun beharko luketela, eta eduki soziokulturalak dituzten bideoak, berriz, bost minutu luze jota. Izan ere, ikasle gehienek erraz galtzen dute arreta hamar minutu pasatutakoan.

Hortaz, hobeak dira bideo laburrak, informazioa hobeto sartzeko aukera ematen dutelako, osorik errepika daitezkeelako eta ikusi ondoren etenak egin daitezkeelako. Beraz, gai bat azaltzeko hamar minutu baino gehiago behar badira, seinale da hobe dela gai horri buruzko bideo laburrak egitea bideo luze bat baino.

Bada beste kontu bat edukiari begira aintzat hartu behar dena: ikasleekin hainbat jarduera landu behar dira, era askotakoak, bideoa ikusi aurretik, bitartean eta ondoren, haien arreta aktibatzeke eta hari eusteko. Gainera, irakasleak bideoarekin landu nahi dituen eduki zehatzak ere jorratu behar dira.

4.3. IRUDIAREN ETA SOINUAREN KALITATEA

Azkenik, bideoaren ikuspegi teknikoari dagokionez, ezinbestekoa da irudi- eta soinu-kalitate ona izatea, ikasleek distrakzioz gabe ikus dezaten.

Irudia bera, bereizmen handian grabatu behar da, enkoadraketa eta doitasun egokiek.

Bestalde, soinua da arazo gehien ematen dituen, grabaketa oztoporik gabe entzun behar baita. Kontuan izan behar dugu ikasleak ez direla euskaldun peto-petoak izango, eta oso nekeza izan daitekeela haien hizkuntza arrotz bateko audioa ulertzea. Horregatik, ezinbestekoa da mikrofonoa erabiltzea. Ez du zertan gama altukoa izan; gama ertaineko papar-hegaleko mikrofono batekin emaitza ona lor daiteke. Mikrofonorik ez badugu, mugikorreko entzungailuetakoa erabil dezakegu, grabaketako zarata ia erabat ezabatzen baitu horrek ere.

Halaber, soinuari dagokionez, irakasleak atzeko zarata handirik entzuten ez den une bat aukeratu behar du grabatzeko. Gainera, kontuz ibili behar du hitz egiteko moduarekin: hitzak ondo ahoskatu behar ditu, esaldiei intonazio egokia eman behar die, erritmo naturalean hitz egin behar du eta beharrezko etenak egin.

Agian, gerta liteke azpituak jarri beharra izatea. Kontu hori ere aztertu beharrekoa da. Oso gomendagarriak dira, bigarren hizkuntza bat ikasten ari diren ikasleei hobeto ulertzen laguntzen dietelako, baina lan handia eskatzen dute, eta bideo batean azpituak ipintzeko arau zorrotzak bete behar dira. Besteak beste:

- Grabatzean espazioa utzi behar da azpialdean.
- Ezin dira bi lerro baino gehiago idatzi.
- Testuaren tamainak egokia izan behar du, ondo irakurtzeko modukoa baina handiegia izan gabe.
- Kolore egokia jarri behar zaie, argi ikusteko atzeko irudien gainean.
- Pantailan jarrita dauden tartean eroso irakurtzeko denbora eman behar du.

5. PANTAILA-IRUDIEZ OSATUTAKO BIDEOTUTORIALAK

Aurretik adierazi dugun moduan, pantaila-irudiak bilduta osatutako bideotutorialena da formaturik sinpleena eta erabilgarriena.

Halakoak sortzeko, nahikoa da aurkezpen bat prestatzea –edozein formatuk balio du (PowerPoint, PDF, Prezi, etab.)– eta pantaila grabatzeko programa bat erabiltzea (aurrerago gomendatuko ditugu), irakasleak aurkezpena egiten duen bitartean pantaila grabatzeko. Irudiarekin batera audioa grabatzen bada, ondoren ez da ediziorik egin behar.

Bideo-formatu hori oso sinplea da ikuspuntu teknikitik, baina aplikazio didaktiko handiak ditu. Gainera, irakasleari aukera ematen dio bera pantailan ez agertzeko. Hori abantaila bat da jende askorentzat, beren burua grabatzea oso gogorra egiten zaielako.

Pantaila grabatzeko doako edo erdi-doako programa ugari daude, esate baterako ShareX, Loom, GreenShot edo Screencastify. Kasu batzuetan, berezko aplikazioa dute, eta ordenagailuan deskargatu behar da erabiltzekotan. Beste batzuetan, aldiz, luzapenak dituzte Google Chrome nabigatzailean, eta instalatu besterik ez da egin behar.

Antzera samar funtzionatzen dute denek ere: ordenagailuaren pantailaren zer zati grabatu nahi den aukeratu behar da (osorik grabatu nahi den edo eremu bat), eta, ondoren, audioa grabatu ala ez erabaki.

Diseinu grafikoko online tresnaren bat erabiltzea da beste aukera interesgarri bat, Canva adibidez. Tresnaren webgunean aurkezpen erakargarriak presta daitezke, eta bere aplikazioa du aurkezpenak grabatzeko, bai pantaila osoan bai irakaslea bularretik gora ageri dela.

Nahiz eta pantaila-irudiak dituzten bideotutorialek oso sinpleak diruditen, ikuspuntu didaktikotik oso erabilgarriak izan daitezke. Ildo horretatik, kontuan hartu behar da bideoa are interesgarriagoa izango dela irakasleak prestatutako aurkezpena ona bada; horretarako, ulerterraza eta erakargarria izan beharko du. Grabaketa guztietan bezalaxe, ondo erreparatu behar zaio audioari, argi eta garbi entzun dadin, eta, ahal izanez gero, arestian aholkatu den bezala, mikrofono batekin grabatzea komeni da.

6. GERRITIK GORAKO GRABAZIOAK

Bideo-formatu honetan, irakaslea kamerari begira dagoela egiten da grabazioa, norma-lean gorputz erdia agertzen zaiola. Hiru aukera daude:

- kamerari begira eta bestelako inongo tresnarik erabili gabe;
- atzeko arbel fisiko batean idazten ari dela;
- *chroma* bat darabilela, bertan agertzeko azalpen garrantzitsuenak, testu eta irudiekin.

Horrelako bideoak dira ohikoenak hezkuntzan, eta gai guztiei buruzko adibide ugari ikus daitezke YouTube eta antzeko plataformetan; beraz, ikasleak ohituta egoten dira ikustera, eta haien arreta ere errazago erakartzen dute, hizketan ari den norbait agertzen baita, eta ez PowerPoint aurkezpen bateko irudi estatikoak.

Hala ere, irakasleak formatu hori aukeratzen badu, lehenago soinu-kalitatearekin lotuta aipatu ditugun kontuez gain (mikrofono bat izatea, atzeko zaratak kentzea eta ahoskatze, intonazio, erritmo eta eten egokiak), irudiari buruzkoak ere landu beharko ditu, kalitate onekoa behar du-eta izan.

Alde horretatik, ezinbestekoa da bereizmen handian grabatzea, hau da, gutxienez 720 pixelekin, baina 1080 pixelekin grabatzea gomendatzen dugu, hori baita egungo bideo-plataformetan gehien erabiltzen den bereizmena. Eta horretarako ez da beharrezkoa


kamera profesional bat erabiltzea; gama ertain edo altuko smartphone gehienek bideo-kamera ona dute, bereizmen handiz grabatzeko nahikoa.

Halaber, irakaslearen irudiak garbi agertu behar du; alegia, ezin du lauso ageri, eta gomendagarria da irudi estatikoa izatea, kamera mugitu gabe. Ez da gomendatzen mugikorra eskuan izanda grabatzea, irudia asko mugitzen baita eta oso zaila baita kontzentrazioari eustea. Horregatik, kamera edo mugikorra ez mugitzeko, tripode bat erabiltzea da egokiena. Dena den, halakorik ez badugu, nahikoa izango da kamera toki finko batean ipintzea.

Irakasleak irudia behar bezala enkoadratzeko moduan ipini beharko du grabatzeko gailua, ondoren azalduko ditugun arauetara jarraikiz.

Lehenik eta behin, formatua aukeratu behar da, horizontala edo bertikala, kontuan hartuta zer gailu erabiliko den bideoa erreproduzitzeko. Alde batetik, eskolan ikustekoa bada, formatu horizontalean grabatzea gomendatzen da, hori baita pantaila gehien formatua (telebistak, proiektagailuak, arbel digitalak, etab.). Beste alde batetik, bideoa ikasleei bidaliko bazaie, eskola aurretik edo ondoren ikusteko, hobe da formatu bertikalean grabatzea, ziur aski telefono mugikor batean ikusiko dutelako, hala ikusten baitira sare sozialetako bideoak.

2. irudia. Irakaslea kamerari begira atzean chroma bat duela, grabaketa horizontala eta bertikala.




Bigarrenik, zuzen enkoadratu behar da, kamera begien pare samarrean dagoela (horrela, irakaslea ikasleei ari zaiela hizketan emango du), eta soina ia osorik ikusteko moduan (ikus 3. irudia). Hau da, tartetxo bat utzi beharko da buruaren gainean, eta, azpian, aldakara arte luzatu irudia, eskuen mugimendua ikus dadin: eskuak dira gizakion adierazpiderik nagusiena, aurpegiko keinuekin batera.

3. irudia. Enkoadraketa egokia.



Bestalde, irakasleak kamerari begira grabatuko du bere burua (denborarik gehienez, behintzat), irakurri gabe, ahal badu, eta asko mugitu edo balantza egin gabe. Halaber, hitzik gabeko hizkerari ere erreparatu beharko dio, eta ikasleei nahasmena eragin diezaiketen keinuak ekidingo ditu.

4. irudia. Enkoadraketa buruzko aholku eta oharrak



Hirugarrenik, irakaslearen atzean ikusten denari ere egin behar zaio kontu. Horrelako bideoetan, ahal izanez gero, gomendagarria da atzealde atsegina edukitzea (apalak eta liburuak, margolan bat, etab.), edo, bestela, neutroa (zuria edo pastel-tonukoa, arreta galarazteko elementurik gabe). Jakina, ezin du inork atzetik pasatu grabatu bitartean, eta ez da komeni ate ireki baten aurrean grabatzea (ikuslearen arreta galarazten du), ezta leiho baten aurrean ere, litekeena delako argi-aldaketak egotea grabatu bitartean, eta, ondorioz, irudia ilundu edo argitzea bat-batean.

Argia da elementurik garrantzitsuen irudiaren kalitate ona ziurtatzeko. Hain zuzen, argia egokia izateko, zorrotz saihestu beharko dira argi-kontrak (eremu batzuk oso argiak eta beste batzuk nabarmen ilunagoak) eta muturreko argiztapena duten atzealdeak, bai argiegiak (itsuak) eta bai ilunegiak, biek oztopatzen baitute irudia ondo ikustea.

Gainera, norbaiten soina argi egokiarekin grabatzeko, onena da foku bat erabiltzea, argia uniformea izateko. Ezin bada fokoa erabili, ahalik eta ondoen argitu behar da halere irakaslearen aurpegia, itzalak ekiditeko, lanpara osagarriak edo flexoak erabiliz.

Bestalde, grabaketa gordetzeko erabiliko dugun formatuari dagokionez, mp4 formatua da gomendagarriena, kalitate apur bat besterik galtzen ez duen bideo-formatu konprimatua: arina da, eta hori oso lagungarria da bideoa ikasleei posta elektronikoko bidez bidaltzeko, edo webgune batean argitaratzeko.

Azkenik, soineko grabazio hori non gorde ere erabaki beharko du irakasleak. Izan ere, mp4 formatuan egon arren, tamaina handia dute. Beraz, aukera ona izan daiteke irakasleak YouTube kanal bat izatea eta bertan gordetzea.

Aukera horrek abantaila ugari ditu. Alde batetik, doakoa eta oso sinplea da: YouTube kanal bat irekitzeko, Gmail kontu bat eduki besterik ez dago. Bestetik, plataforma horrek aukera ematen du bideoak ezkutuan gordetzeko, esteka dutenek ikus ditzaten, ez beste inork. Hartara, irakasleak YouTubean gorde ditzake bideoak, ordenagailuan tokirik galdu gabe, eta ikasleek zuzenean bertatik ikusi.

7. ESKOLEN GRABAZIOAK EDO KANPOKO JARDUEREN BIDEOAK

Artikulu honetan jorratuko dugun azken bideo-formatua eskolako edo kanpoko jardura baten grabazioa da, komunikazio-egoera erreal bat jasotzen duena. Hauxe da dene-tatik bideo mardulena, aukera didaktiko anitz ematen dituen.

Aurreko atalean irudiaren eta soinuaren kalitate onarekin lotuta aipatu ditugun kontuez gain, hainbat jende agertzen duten bideoak grabatzeko orduan, aintzat hartu behar dira legezko alderdiak, besteak beste parte-hartzaileen irudi-eskubideak (baimena behar da grabatzeko), eta beste alderdi tekniko batzuk.

Lehenik eta behin, irudiari begira, kontuan izan behar da eszena bera kamera bat baino gehiagorekin grabatu behar dela, edo eszena beraren grabazio edo hartualdi bat baino gehiago egin. Grabaketan agertuko diren denen baldintza tekniko guztiak landu behar dira: argiak (denek argi eta garbi agertu behar dute), eszena nahiz pertsona bakoitzaren enkoadraketa, atzealdeak, etab.

Bigarrenik, soinuari dagokionez, kontuan izan behar da parte-hartzaile bakoitzak mikrofono bana eduki behar duela, ikasgelatik kanpo grabatuz gero, inguruko zarata kudeatu beharko dela, eta abar.

Azkenik, irakasleak baloratu behar du ea grabatu ondoren bideoek edizio- eta postprodukzio-lana behar duten: lan hori konplexuagoa da, eta ezagutza sakonagoak behar dira. Beraz, bideo-formatu hau ere ona da, bai, baina dagoeneko bideoak editatzeko programei buruz badakitenei gomendatuko nieke batez ere.

Aldiz, aurreko biak, pantaila-irudiz osatutako bideotutorialak eta irakaslearen gerritik gorako grabaketak, aukera sinpleagoak dira eta helduei euskara irakasten dien edozein irakasleak erabili ditzake ikasleentzat bideo egokiak sortzeko, bai eskola-orduetan bertan erabiltzeko, bai saioen aurretik edo ondoren ikusteko eta, hala, ikaskuntza ikasgelako paretatik at ere hedatu ahal izango da.

Itzultzailea: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

Bibliografia

- Cassany, D., Murua, I. eta Urrutia, M. (2023). ForVid ikerketa: bideoaren erabilera helduen euskalduntzean. *Hizpide Monografiak*, 9. <https://doi.org/10.54512/WXEQ9467>
- García Matamoros, M. A. (2014). Uso instruccional del video didáctico. *Revista de Investigación*, 38(81), 43-67. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=376140396002>
- Jancsó, K. (2017). ¿Cómo darle la vuelta a la clase de ELE? El aula invertida y el uso de Edpuzzle y Powtoon en la enseñanza del español. *Revista electrónica del Departamento de Estudios Hispánicos de la Universidad de Szeged*, 1, 100-107. <http://publicatio.bibl.u-szeged.hu/11504/1/aulainvertida.pdf>
- López Álvarez, D. (2019). *Autoproducción de vídeos educativos para e-learning*. Universidad Internacional de Andalucía. <https://dspace.unia.es/handle/10334/5786>
- McNulty, A. eta Lazarevic, B. (2012). Best practices in using video technology to promote second language acquisition. *The Journal of Teaching English with Technology*, 12(3), 49-61. <https://tewtjournal.org/download/5-best-practices-in-using-video-technology-to-promote-second-language-acquisition-by-anastassia-mcnulty-and-bojan-lazarevic/>
- Sánchez González, M. (2019). *Vídeo educativo: potencial, formatos y producción. Guías prácticas*. <https://www.cibermarikiya.com/proyectos/e-book-bajo-creative-commons-sobre-potencial-y-uso-educativo-de-videos/>